




Tailer ibiltaria: "Creativity"

- » Proiektu ibiltari berri honek haurren asmamena pizteko eta mundu aldakor honetan ongi sentitzen laguntzeko tailerrak proposatzen ditu



"Creativity" haurren asmamena, trebetasuna eta sormena pizteko diseinutako gune bat da. Proiektu ibiltari berri honen xedea da arazo sinpleetarako irtenbideak diseinatzera eta garatzera bultzatzea ikasleek. Ikasleek eguneroko materialekin eta teknologia maila baxuko eta altuko tresnekin lan egingo dute lantegietan, beren ideiak gorpuzteko.

"Creativity" autobus baten barnean gauzatzen da, eta autobusa unitate mugikor egokitu bihurtzen da, mugikortasun murriztua duten pertsonak ere bertara sartu eta jardueran parte hartu ahal izateko. Ibilgailuaren barnean, bankuak, lanerako mahaiak eta ikasleentzat prestatuko zenbait proba daude.

Espazioa gunetan banatuta dago, zenbait trebetasun landu ahal izateko: batetik, mekanikaren gunea, engranajeak, mekanismoak, puxtarriak eta *pinball* makinak dituena; beste batetik, haizearen gunea, haize hodiak dituena; beste batetik, elektrizitatearen gunea; eta, azkenik, argiaren gunea, *stop motion* sistema duena.

Jarduerak jolasean eta lankidetzan oinarrituta, ikasleek materialekin ikertu, planifikatu, diseinu berriak sortu, ohiko materialak erabili eta eginkizun berriak aurkitu ahal izango dituzte espazio honetan, diziplina anitzeko proposamen irekien bidez, zientzia, teknologia, ingeniari, artea eta matematika landuz. Zeharkakoak diren beste gaitasun batzuk ere lantzen dira, hala nola ikaskuntza kooperatiborako ohitura, ikaskuntzarako nor bere burua ezagutzeko eta proiektuak sortzeko eta egitea.

"Creativity" proiektuan, haurrek materialak esploratuko dituzte, erronkei aurre egingo diete, probak eta testak egingo dituzte eta partekatu egingo dute

Tailerrak lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude, 6tik 16 urtera bitartekoei bereziki, bai eta familia taldeei ere. Bideratzaile batek gidatuko ditu haurrek sormen prozesuan, eta haiekin joan diren helduak ere, irakasleak zein senideak, gonbidatuta daude.





Tinkering mugimendua: sormenez inprobisatzeko gaitasuna

"Creativity" proiektuko ikaskuntza sistema San Frantziskoko Exploratoriumeko Tinkering mugimenduan oinarritzen da. Mugimendu hori, era berean, Maker (edo Making) mugimendutik sortu zen: teknologia digitalak eta fisikoak nahasten ditu objektuak eta gailuak sormenez diseinatzeko, eraikitzeko eta pertsonalizatzeko, helburu ludikoz edo erabilgarritz.

Paradigma berri honetan, sormena eta diseinua bihurtzen dira guztiaren ardatz. Modu inprobisatuan arazoak ebatzea eskatzen duten jolasek erronka berriei sormenez aurre egiteko prestatzen dituzte haurrak, bai eta etengabe aldatzen den mundu honetan eroso sentitzeko ere.

EduCaixa, XXI. mendeko hezkuntzarantz

"la Caixa"-ren hezkuntza eskaintza osoa bateratzen duen programa da EduCaixa, eta haren xedea da hezkuntzaren eraldaketa sustatzea eta bultzatzea, eta, horrela, XXI. mendeko gizartearen beharrei erantzutea.

EduCaixa haur hezkuntzako, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta erdi mailako prestakuntza zikloetako ikasleei eta irakasleei zuzenduta dago. Programaren xedea da ikasleek gaitasuna lantzea sustatzea, eta helburu hori lortzen laguntzen duten hezkuntza baliabideak, jarduerak eta praktikak eskaintzea hezkuntza komunitateari.

Hezkuntza proiektua

EduCaixa

Irakaslearentzako baliabide didaktikoak, erakusketarako bisita prestatzen eta bisitaren ostean ikasgelan gaia lantzen lagunduko diotenak

www.educaixa.com

www.lacaixa.org



Fundación "la Caixa"